


Noaua!!



Perkusio ikastaroa
antolatu du Zumartek



Izena emateko epea zabalik dago oraindik

Euskaltegia martxan

Etorn
ezagutzera

Olar-Goxo
ETIKETATUE

HARATEGIKO ERREKETAHARRA
BAJERRIKO TONAHAL URRUGA, BEHU
TZULITAK, EINEKO ASKUNEA ETA
ETKERN EGINDAKO PRODUKTUEN
AUKERAK ZABALA.

URDAITEGIKO ERREKETAHARRA
ONDU ETA EGOSITAKO
URDAIAZPIKIDAK, EERTAKO ETA
KANFORO-GAZEN URDAITEGIKO
PRODUKTUEN AUKERA LERDUA.

FRUTADENDA ERREKETAHARRA
EERTAKO SAKAZKO ETA PILUTEN SESEKID
PAREGABEA, DEKOR KALITATE
HANDIENAREKIN SORBITZU HONER
SABORREN ETA NEUREZKO PREZIOETAN.

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 40170 Urduliz

NOU!!!

N U KUTERK IT
SEKIZ
23 531/11 KZ U E R N
WWW.U.C.N

rut k

U t x n t N U n urkiuk tuzu
tr n t ut us n rut g g h g

Helbide Berrian
gaude Zatoz eta ikusi

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8 • ☎ 943 370 008

Txirrikitutik !!

Usurbil betidanik herri txistuzalea izan da. Txistulariak, txistua, ttunttuna eta atabalak Usurbilgo jai eta ospakizunetako protagonistak izan dira eta oraindik hala izaten jarraitzen dute. Agirietan azaltzen denez, Udalak hitzarmena egin zuen herriko txistulariekin egun jakinetan jo zezaten: Santixabeletan, pazko egunean,... Argazkia 1968 urte ingurukoa da eta Julen Zuazabeitiak (Julian txiki bezala ezagutua) Santixabel jaietan herriko pilotalekuan atera zuen. Urte asko pasa diren arren ondoko argazki honetan agertzen diren txistulariak gogora ekarri nahi izan ditut, herriko kaleetan makina bat doinurekin alaitu baitzituzten usurbildarrak. Bertan ageri diren txistulariak ezagutu al dituzue? Ezkerretik hasita Mikel Urkia (atabala), Inaxio Aranburu (atabala), Juan Kruz Pagola (txistua eta ttunttuna), Jexux Mari Pagola (txistua) eta Angel Aranburu (txistua eta ttunttuna). Zenbat fandango, arin-arin eta kalejira joko ote zituzten?

Zalao Arnaiz Ibarguren
 zalao@usurbil.com



Argazkilaria: Julen Zuazabeitia
 1968ko Santixabelak, Kaleberria

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Denborerri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.

Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ERRAUSTE PLANTAREKIN BUELTAKA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

ODEI ASTIBIA PERKUSIO IRAKASLEA **8. OR.**

EUSKALTEGIKO IKASTURTE BERRIA **9. OR.**

ARANTXA MANTEROLAREKIN SOLASEAN **10. OR.**

“BAT EGIN EGUNA” ALTSASUN **12. OR.**

ESKUBALOI PARTIDAK KIROLDEGIAN **15. OR.**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOSE PIÑAS

Sahara: askatze borroka

Mendebaldeko Sahara: lurraldearen bi heren ilegalki Marokok okupatu arren, benetako sahararren herria dena.

Seihun saharar baina gehiago desagertuak, milaka preso politikoak, milaka torturatuak eta 160.000 baina gehiago erbestertuak Marokoren 30 urteko okupazioaren ondorioz.

Gutxi gorabeherako miloi erdiko pertsonak osatzen duten herri hau, isiltasunez mantendu den errepresioa 2005. maiatzetik apurtu nahian dabil eta kalera atera dira bere autodeterminazio eskubidea aldarrikatzera.

Borroka horretan topatzen dituzten zailtasun guztiak apurtu behar dituzte, hots:

1) Manifestatzeko debekatua izan arren, ia egunero ateratzen ari dira kaleetara, eta manifestazio guzti guztiak polizi eta ejertzito marokorrek bortxakeriaz erpremitu dituzte.

2) Elkarrekin sortzea debekatuta dute. Ondorioz saharar giza eskubideen defendatzaileak bilera batetik datozenean bahituak izaten ari dira.

3) Kaleetan saharar talde bat bilduz gero poliziak sakabana-tzen du.

4) Kaleetan sahararrek bere arropa tradizionalekin jantzita doazenean sarritan polizia etortzen zaie eta etxera bidaltzen ditu arropak kentzeko aginduz.

5) Ezin dute beraien bandera plazaratu. Etxeetan trapu zaha-

rrak josten dituzte bandera osatzeko dendetan oihalak eta banderak dituen koloreak saltzen ez dizkietelako. Poliziak behin eta berriz etxeak arpilatzen dizkie.

6) Umeek eskoletan Marokoren ereserkia egunero abestera behartuak daude. Jada polizia eskoletako patioan furgonetekin instalatuta dago eta gela bakoitzean beste polizi bat dago umeak eta gazte sahararrak (matxinada honetako protagonistak direnak) izutzeko eta umiliatzeko.

7) Sahararrek lan egiteko aukera murrizta daukate, Marokoko agintariak administrazio lanpostuak eta merkataritza osoa kontrolatzen baitituzte.

8) Ospitaleak Marokoko agintarien kontrolpean daudenez sahararrak joaten ez dira ausartzen: behin baino gehiagotan handik polizia-etxetara bidali baitituzte.

9) Kaleak, komertzioak, hotelak... salatzailez eta polizia sekretuz josita daude eta beraien begiraden presioa uneoro sentitzen da.

10) ...eta abar... eta abar...

Borrokan jarraitzeko arrazoi bakarrak eta nahikoak: Justizia, Duintasuna eta Nortasuna.

Mendebaldeko Sahara: itsasoa, fosfata, eta agian petrolio eta gas naturala daukan lurraldea.

Mendebaldeko Sahara: espetxe handia bihurtu da sahararentzat.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

Ika-mika

Herrian azaldu diren pankarta batzuen aurrean

Azken aste hauetan herrian hainbat pankarta azaldu dira ni salatuz "okupa" batzuk desalojatu nahi ditudala-eta; baita manifestaldi bat ere egin okupa hauekiko atxekimendua azalduz.

Idatzi honekin udalak emaniko pausoa argitu nahi ditut.

2006ko martxoaren 9an, udala ohartu zen ezezagun batzuk "maixu etxea" deritzon eraikinaren 4. pisuko bi etxebizitzetan sartuak zirela indarrez (zerrailak aldatu zituzten). Udal idazkaria eta aholkulari juridikoa entzun ondoren erabaki nuen prozedura administratibo-judizial bat irekitzea zela biderik egokiena etxebizitza municipal horiek berreskuratzeko.

Etxebizitza horiek udalarenak dira, jabego publikoko ondasunak. Ongizate departamenduko beharrei atxikituak.

Larrialdi egoera batean erabiltzeko: uholde edota sute bat gertatzen denean norbait etxerik gabe geratzen denerako, genero indarkeriatatik kale gorrian gertatzen diren pertsonentzat, eta antzeko egoera larrientzat. Horrela erabaki zuen udal-batzarrak 2000ko urriaren 31n.

1990ko otsailaren 27ko udal-batzarrak finkatu zituen etxe horiek erabiltzeko baldintzak, eta beste batzuen artean, usurbildarra izatea.

Okupa hauei (bat bera ez usurbildarra) 10 eguneko epea eman zitzaion beraien arrazoiak agertzeko eta nerekin ere bilera izan zuten, non eskatu nien etxebizitzak uzteko. Erantzuna ezezkoa. Etxeak okupatzeko arrazoiak: laburturik, etxebizitzarik ez zutela.

Hau da errealitatea. Kanpotar batzuk, udal etxebizitza batzuk okupatzen dituz-

te, larritasun egoeran egon litezkeinei etxebizitza aukerak murriztuz. Gainera, "maixu etxean" obrak egitekoak ginen etxebizitzaren egoera hobetzeko (2006ko aurrekontuan jasorik dago asmo hau) eta obrak ezin egin.

Kontziente naiz etxebizitza egoera larria dela eta gazte askoren ezina. Baina horrek ez du justifikatzen larritasun handiago batean egon litezkeen familiei zuzenduriko herri-etxebizitza batzuk ilegalki okupatzea.

Eta era berean oso garbi dut ezin zaio la udal honi akusatu etxebizitza behararren aurrean ez dela ezer egiten ari. Hor ditugu egitekoak diren etxebizitza babes-tu mordoa.

Luisuari Ormaetxea
Usurbilgo alkatea

Zubietako gainan dago notizia...

Gipuzkoako zaborren kudeaketaz arduratzen diren mankomunitateek errauste plantaren alde egin zutenean, erraustea planta Donostialdean kokatu behar zela erabaki zuten. Ez zen izan Odon Elorza Donostiako alkatearen gustuko erabakia. Gauzak horrela, Odon Elorzak errauste planta jartzeko hiru kokagune posible proposatu zituen ekainaren 23an; Landarbasoko bi kokagune eta Zubietako beste bat, Abalotz bezala izendatu zutena. Aste honetan jakin dugunez, Foru Aldundiak eta zaborren mankomunitateek hiru aukera horiek baztertu dituzte. Baina proposamen berriaren arabera ere, errauste planta Zubietan jarriko litzateke. Ez Abalotzen, Zubietan gaina bezala izendatu duten kokagunean baizik.

Hasieran Urnietan kokatu nahi zen. Gipuzkoa herrialde malkartsua dela eta zaila zela beste kokagunerik topatzea. Baina Urnietako herria kalera irten zen eta presio sozialaren ondorioz, Urnietako aukera albo batean utzi zuten. Ordutik hona, hamaika kokagune jarri dira mahai gainean. Foru



PLATAFORMEK IRAGARRI BEZALA, ZUBIETA GAINA DA ALDUNDIAK HOBESTU DUENA.

Aldundiak sei proposamen egin zituen. Donostiako udalak, beste hiru. Lau urteren buruan, proposamen denak desagokiak dira eta, orain, Zubietan gaina bezala izendatu duten kokagunea da indar hartu duena. Azken proposamena izango al da?

Mankomunitateek eta Aldundiak Donostiako udalaren oneritzia jaso nahi dute orain. Donostiako udalak jada aurreratu du ez duela ezer esango txostena ongi aztertu arte.

Kokaguneen inguruan sortu den eztabaida seriotasun gutxikoa dela dirudien arren, sakonagoa den eztabaida sahiesteko balio izan du. Errauste sistemaren egokitasunaz jada ez baita hitz egiten. Errauste planten aurkako plataformek, ordea, eztabaida honen mamiari heldu nahi diote. Baina bistan denez, instituzioek baino bozgorailu gutxiago dituzte.

IMANOL UBEDA

Ingurumen azterketaren ondorioak

Erainaren 23an, Donostiako Udalak Landarbasoko bi kokagune eta Zubietako beste bat proposatu zituen errauste planta jartzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru kokaleku horien ingurumen azterketa egiteko eskatu zuen. Azterketak hiru kokaguneak baztertu ditu. Zergatik?

Landarbasoko bi kokaguneak

Hedadura. Ez daude sei hektarea errauste planta eraikitzeke.

Sarbidea. Inguru malkartsua dela eta, ezinezkoa da errauste plantak behar duen azpiegitura sistema jar-

tzea.

Bioaniztasuna. Landarbasoko bioaniztasunari kalte eragingo lioke errauste plantak.

Ekologia korridorea. Bi kokaguneak ekologia korridorean daudenez, azpiegitura hori eraikitzeak fauna eta flora zatikatuko lituzke.

Arkeologia. Ondare arkeologikoa hondatuko luke.

Zubietako kokagunea (Abalotz)

Bioaniztasuna. Ingurumenaren ikuspegitik interes handiko lekua da.

Sarbidea. Azpiegiturak ekologia korridorea trabatuko lukete.

Basoa. Basoko zuhaitz asko moztu beharko lirateke, eta ingurumenari kalte handia eragingo litzaioke.

Orain proposatzen dena

Zubietan. Errauste planta Donostiako udalak proposatutako lekutik hurbil jartzea.

Zergatik? Abalotz ibaiaren alde bat sarbiderako leku aproposa delako; ekologia korridoreari ez lioke kalte egingo.

Berria, 06/10/03.

TXOKOALDE

IÑAKI LABAKA

Uzta biltzeko garai



Udazkenean sartuak, heldu da sagarrak eta Untxaurreak biltzeko garaia, pipermin biltzailer gehienak joan badira ere, bilketa luzatuko da egun batzuetan eta iraileko hego haize kutxuko egun ederrak babarrunak biltzen hasteko aprobe-txatuko dituzte. Aurtengo babarrun uzta oso berandu dator eta orain arte oso gutxi bildu da.

Piper bilketa ere iazkoa baino dexente kaxkarragoa izan omen da. Aldiz ezin esan dezakegu sagar gutxi izan denik. Gure gozamenerako, herriko sagardozaileek bertako sagarrarekin sagardoa egiteko aukera izango dute.

Bestalde, ugari dira astebukaeretan goiz jaiki eta onddoak jasotzen ibiltzen direnak. Irailean ez omen da perretxikurik izan eta gaztain mordoa dagoenez, mendian ibili dena gaztainak etxeratzearekin konformatu behar izan du. Hala ere eguraldi aldaketarekin batera laster perretxiku kolpea etorri zain daude hainbat eta hainbat.

Bukatzeko lehen ere tarte honetan aipatu bada, gogorarazi nahi nieke Erroizpe elkarteak bazkideei, urriaren 8an urteko Batzar Orokorra izango dugula. Duela lau urteko batzarrean, urteroko bilera otsailaren azken igandean egite erabaki bazen ere aurten ezin izan da egin egoitzaren arazoa zela medio. Azken hilabeteetan bazkide batek baino gehiagok galdetu dit batzarra noiz egingo zen eta zertan ziren egoitzaren kontuak. Guzti honen berri izateko aukera dugu datorren igandean.

KALEZAR

JOSEBA PELLEJERO

Igande gaueko lapurreta



Irailak 25, goizeko 5:00ak aldera, atea irekitzen hasi eta lapurrak ibili direla konturatzen da Antonia. Peña Pagolako elkarteak garbitzailea da eta oporretatik bueltan lehendabiziko eguna zuen, sartu eta beste atea indarrez irekita zegoela ohar-tu zenean. Elkartea bera beti bezala zegoen, nahiz eta diruzaina egoten den atea ere indarrez irekia eta giltzapean zeuden apalak eta armairuak palanka batez irekita egon.

Garbi dago zuzenean dirua zegoen tokira jo dutela eta eramane, dexente eramane dutela. Gau berdinean Orioko beste elkarte batean antzeko lapurreta bat gertatu zen, auskalo...

Orain dela 15 hilabete beste lapurreta bat pairatu genuen. Komuneko lehio txikia txikitu eta bertatik sartu ziren. Auzotar batek zerbait somatu eta eskuan zutenarekin aldegin behar izan zuten. Oraingoan berriz, ate handitik sartu eta irten dira, aurrekoan baino lau bider diru gehiagorekin. Ertzantza aztertzen ari da baina argi bide asko ez ditu esku artean.

Lehenik ere zerbait pentsatzen ari ginen eta zerbait egingo dugu, hirugarren aldirako gauzak zailago jarri beharko dizkiegu lapurrei.

KALEBERRI

IRATI PORTU

Euskal dantzak



Uda inorri agur esan gabe joan zaigu eta udazkenak hartu du haren lekua. Udazkenak bai, baita urte guztiko martxak ere! Herrian nabari da mugimendu gehiago badela eta haurrak ere hasi zaizkigu ikastolan berriz; udazkenak ez dio inorri barkatzen.

Hau guztiarekin batera eskolaz kanpoko aktibitateak ere hasi dira, hau da euskal dantzen adibidea. Urrian berriro ere herriko dantzari txikiak jotake hasiko dira dantza berriak ikasten. Iazko ikasturteari agur esateko eskurtsio dotore bat ere eginak dira.



zeetan jolastu ahal izan genuen lasai.

Ikasturte bat amaitu eta bestea hasi beraz, urriaren 6an arratsaldeko 16:30ean bilera bat egingo da Agerialden entsaioen orduak zehazteko eta oraindik apuntatu ez denak aukera izango du orduan bertan egiteko.

Egun polita pasatu genuen bertara animatu ginenok; dena 40 haur inguru eta beraien begira-leak elkartu ginen. Azpeitira joan ginen oraingo honetan, goizean igerilekura eta arratsaldean, berriz, Loiolako belar-

ATXEGALDE

JONE EIZMENDI

Iraila errepasatuz



Iraila, askorentzat oporren ondorena, berriro lanera itzuli beharra, ikasketak asteko unea edo nahi duenarentzat han eta hemen ikastaro ugari daude aukeran; gure auzo edo herrian mugimendua nabari da.

Iraila, Kontxako estropadak. Zenbat gora behera edo istilu! Denek Donostiko bandera lortu nahi eta hori ezinezkoa izan. Aurtengo urtean eguraldi aparta izan dute alajaina.

Irailean ezin ahaztu hildako gudariekin ez eta 36ko gerrateko senideekin. Omenaldi goxoa jaso zuten Manuel eta A.Pellok, zorianak benetan.

Irailean jarraituz, Ernioko jaiak ere hor izaten ditugu, nahi duenak mendi buelta egin edo erromeri giroan egun pasa ederra egiteko. Gailurrera iristean gurutze asko ikusten ditugu eta hainbat gauza idatzita ere bai. Badago plaka bat bertso hau idatzita duena:

Erniyo-mendi Erniyo-mendi
Euskal menditan zarrena
gogoan al-duk erromateko
gure Laurtaunen izena?
bizi duk oraindik Oyarzun-en

lar bikain aren ayena
ta gaur ikusi dezaken aren
ireganako naimena
ona larraundar gaurkuak opa
dizeken oroitzapena
1827 San Juan Txiki

SANTUENEA

AGUSTIN ESNAOLA

Lapurreta auzoko elkartean



Urriaren 1ean, igande gauean, Ibai-Ondo elkartean lapurrak sartu ziren. Sarrerako atea bortxatu eta bulegoko atea apurtu zuten eta bertan zegoen eguneko ordainketak eta kutxan zegoen dirua eraman zuten.

Lapurren jarrera ere salagarria da. Lapurketa egiteaz aparte bertan pixa egin da joan dira. Ez dute gaitasunik izan ere komuna erabiltzeko. Honi esan diezaiokegu lapurtuaz aparte buruan pixa egin digutela.

Lapurrak, oso ondo zekiten elkartearen erabilpena zein zen, zein orduetan ez zen inor egoten eta zein zen egin beharreko lana. Erabili zuten teknika ona da, auzotarrak ez zutelako ezer entzun. Honekin ikusi daiteke lapurketa egin dutenak ez direla zale batzuk, baizik eta, lapurketak egiten dakiten batzuk.

Eraman dutena baina okerragoa da elkarteko kideei sortu arazten digun egonezina. Elkarteak ez da dirua lortzeko enpresa bat, lagun artean eta auzoari zerbitzu bat eskaintzen dion elkarte bat baizik. Salagarria da beste batzuentzat poltsikoa betetzeko aukera bat izatea. Ez da bidezkoa batzuen lanak eta ahaleginak horrela-ko ordaina edukitzea.

Auzoko festak ospatu berria gara eta eguraldi txarra egin arren giroa ederra izan da. Jendearen parte hartzea ere aipagarria izan da. Alai eta pozik egon beharrean festak ospatu ditugulako, triste eta minduta gaude lapurketa delako eta.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Udazkena



Denbora zein azkar doan pentsatzen gelditzeak ere beldurtu egiten nau. Dagoeneko, eta ni behintzat, konturatu gabe, urrian sartu gara.

Urruti gelditzen zaizkit, abuztua hasieran izan ziren gure auzoko jaiak. Bi hilabete bakarrik pasa diren arren, oroitzapenak nahiko nahasiak ditut.

Festak ongi joan dira baina auzotako jaiak ez dira lehen bezalakorak. Orain urte batzuk denok desiatzen egoten ginen ingurutako herri eta auzotako jaiak hasteko. Orain berriz, nahi izanez gero, astebururo dugu juerga egiteko aukera. Tabernaz taberna ibiltzea gustatzen zaigu eta badirudi plazako giroa ez dela hain erakargarri egiten. Baina beno, jai giro hortaz disfrutatzen dugunontzat, San Praixkuek gozatzeko aukera hortxe daukagu!



Hasieran hasi naizen bezala, urrian sartu gara dagoeneko. Egunak moztan eta gauak luzatzen hasi dira eta inguruko kolore berdea ere tonalitatez aldatzen hasiko da. Beraz, disfruta dezagun udazkenaz!

AGINAGA

LARRAITZ IZAGIRRE

San Praixkuak

Oraindik eguraldiak ez dakienean oso ongi zein aurpegi ipini eta ikastolak ireki berriak direnean, trantsizio arraro horretan iristen zaizkigu San Praixkuak, eta urtero bezala konturatu aurretik lehenengo asteburua igaro zaigu. Larunbat gauean lagun talde pila batek, dantza taldeak, eta kintako afari batek edo bestek topo egin zuten sagardotegian eta giro aparta izan zen guztien artean. Plazan ere jende ugari elkartu zen eta batzuek goizaldera arte festan aritzeko aukera izan zuten. Beti bezala, mota des-



berdinetako musikaz gozatu ahal izan genuen, gune bakoitzean gutxi gora behera.

Hala ere, datorren asteburua geratzen zaigu oraindik, ea pasa den hau errepikatzeaz gain hobetzen dugun.

Oraindik beste horrenbeste geratzen dela eta pozik, baina hau ere nahi baina azkarrago pasako denaren penetan agurtzen naiz. Ongi pasa guztiok!



ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Hego haizea bazterrotan

Hala da, zoro haizea ere esaten diote. Zubietan buelta bat eman besterik ez duzue hori horrela dela ikusteko. Harako hura gaztaina poltsa eskuan, triste ondorik ez duelako ikusi. Hurrena hor joango zaigu Nafarroako ez dakit zein bazter isilpekora ditzosozko ondodoen bila.



Bizilaguna. Hilabetea bada, eskopeta zorrozten diharduela. Hegoak ekarriko omen ditu usoak. Plazakoaren ustez, oilagorrak... Hori bai, Zubietan zebiltzan basurdeak jai hartu zuten orain dela hamabost egun batida egunean.

Beste batzuk Ernioko erromerirantz abiatu, Andazarratera iritsi eta haizeak bultzatuta ez ziren gora igo, Txokoaldera joan ziren bueltan. Txokoalden gaztaina bilketa egin eta bertako elkartean bazkaldu zuten. Ondoren, hamabi kilo sardina ere bota omen zituzten Oria ibaira. Guztia normal-normala, ikusten duzuenek.

Dena dela haize honekin konformatu beharko etorkizunean eta hala bedi. Iparra jotzen hasten denean, errauskailuaren keak, direnak eta ez direnak, arnastu beharko baititugu. Eta hori ez du eraldia ekarriko. Hori garapenaren eta zentzudunen eskutik etorriko da.

Odei Astibia, batukada ikastaroko irakaslea

“Perkusioak herritarrengana iristeko aukera ematen du”

Musika gertutik bizi du Odei Astibia oiartzuarrak. Batukada erritmoak are gehiago. Jaioterriko Zozongo eta Usurbilgo BTK taldeen esperientzia ezin hobeen ondoren, batukada ikastaroko irakasle lanetan arituko da larunbatero Zumarten. Urriaren 6an ikastaroan izen emateko azken eguna duzue.

NOAUA! Usurbildarrak batukadan trebatzeari laster ekingo diozu, ezta?

Odei Astibia. Urte honetan, lasaiago arituko gara. Lehenago hasiko gara, aurrekoan otsaila aldera hasi baikin. Instrumentu aldetik, sakonagoak izango dira ikasketak. Talderen bat sortu edo ikasturte bukaerako emanaldia egitea, hurrengo hilabeteetan zehar ikusiko da. Bestela, iazkoarekin alderatuta, antzekoa izango da ikastaroa.

N. Izen emateak nolako harrera izatea espero duzu?

O. A. Ondo doa. Batukadaren eta perkusioaren inguruan eskaera handia dago. Jendea gogoarekin ikusten dut eta ni ere hala nago.

N. Zer asmo dituzu ikasturte berriari begira?

O. A. Garrantzitsua ondo pasatzea da; eta gero, ikastea. Aurrekoan, giro onean talde bat sortu zen. Orain topera dabilta. Horrelako beste zerbait egitea nahiko nuke, baina berrikuntzak txertatuta. Geldirik egiteko ikuskizun bat presatzea agian. Edozein kasutan, ikasturtean zehar taldearen eboluzioa ikusten joango naiz. Alde horretatik, taldea orekatua izatea nahi nuke; erritmo lasaian irakatsi eta denak batera ondo ikasten joatea. Laguntza behar duenari laguntza espezifiko eskainiko zaio. Bestalde, ikasleei musika instrumentuak jotzeko gogo sartu eta talde giroa zer den biziaraztea nahi nuke. Nik bizitakoa besteak biziaraztea nahi nuke. Hori da nire helmuga.

N. Instrumentu kopurua mugatua da. Banaketa nola egingo duzue?



PERKUSIO IKASTAROKO IRAKASLEA IZANGO DA ODEI ASTIBIA OIARTZUARRA.

O.A. Ikasle guztiak musika instrumentu guztiak proba ditzaten ahaleginduko naiz. Gero, nik ikusiko dut, bakoitza zer musika instrumenturekin moldatzen den hobekien. Oraingoan, lasaitasun handiagorekin hartuko dugunez, norbaitek instrumentu zehatz batean trebatu nahiko balu, ariketak emango nizkioke. Saiatzen bada, maila hartuko du.

N. Instrumentu gogokoenik ba al duzu?

O. A. Tinbalak edota djembea. Carlinhos Brown beti horiekin ikusi izan dugu. Instrumentu horrekin doinu politagoak egiten dira. Baina bakoitzak bere xarma, berezitasunak eta ikasteko teknikak ditu.

N. Ikasturte bukaerari begira, talde berria sortu liteke?

O. A. Ikasleen esku utziko dut. Inork talde bateko kide izateko konpromisoa hartu nahi badu haiek ikusiko dute. Norberak ezagutu ditzala dauden bideak eta horien artean nahi duena aukera dezala. Batzuk musika instrumentua bere kasa jo nahiko dute; besteek lagunekin. Talde batean sartu nahiko duenik ere izango da.

N. BTK taldeak emanaldi dezente eskaini ditu. Zer moduz joan da uda partea?

O. A. Merkatuan topera sartu dira. Lana eginez gero, fruitu batzuk daudela ikusten da. Lana egiten jarraituta, emanaldirik ez da falta izango. Azkar, denbora tarte laburrean ikasi arren, fruitu handiak eman ditu.

N. Moda kontua da edo aurrerantzean batukada erritmoak ohiko bihurtu daitezke?

O. A. Indartsu dabil duela bi urtetik eta orain, bere lekua hartzen ari da. Auzoetatik, ezkontzetarako, agur festetarako... deitzen digute. Harrigarria da duen harrera. Batzuek moda kontua dela diote. Baina nik hala denik ez dut uste. Nire ustez, urte batzuetan gutxienez eutsiko zaio. Jendeak ondo pasa nahi du, gauza askotaz ahaztu, lotsa alboratu... Batukadarekin hori guztia lortzen da. Esna ez izan arren, perkusio doinua guk primitiboki sartua dugu. Ondorioz, perkusio afrikarrak adin guztietako herritarrengana iristeko aukera ematen du.

Euskaltegiko ikasturte berria, abian

Euskarak badu ikaslerik Usurbilen. Ikasturte berri honetan dagoeneko 26. Baina oraindik epea zabalik dago. Gu bertako bi irakaslerekin mintzatu gara; Rosa Zubeldia eta Olatz Urdanpilletarekin.

NOAUA! Matrikulazio epea ez dago itxita. Zer moduz joan da orain artean?

Olatz Urdanpilleta. Talde batzuk zintzilik gelditu zaizkigu eta oraindik besteren bat osatu daiteke. Horregatik, izen emateko epeak zabalik jarraitzen du. Dagoeneko 26 herritarrek eman dute izena. Usurbilerako oso kopuru altua ez izan arren, matrikulazioa ondo doa. Hemendik aurrera kopuru hori handitzea eta falta diren taldeak osatzea espero dugu. Klaseak hasi dira.

N. Ikasleak diru laguntzetaz balia daitezke?

O. U. Diru laguntzak Udalak kudeatzen ditu. Guk horiek bideratzen ditugu. Gutxienez urtebetez Usurbilen erroldatuak dauden herritarrek, merkataritzako taldeek, hamabi urtetik beherako haurren gurasoek eta langabetuek jaso ditzakete. Ikasturte amaieran ematen da eta klaseen asistentzian oinarritua dago. Bestalde, HABEk ere zenbait azterketa gainditzeagatik, beste diru laguntza batzuk ematen ditu.

N. Ikasturte berrirako zein da duzuen eskaintza?

Rosa Zubeldia. Euskalduntze taldeak, EGA eta alfabetatzea. Lanean txandaka aritzeagatik klasera etorri ezin dutenei astean bitan zerbitzu bat eman nahi genieke. Aste oso hori ez galdu eta ikasketa prozesuak jarraipen bat izan dezan.

O. U. Udaletxean eskaera hori aurkeztua dugu baina oraindik ez da tratatu. Astean lau orduz gramatika eta mintzamina lantzeko zerbitzuak eskaini nahi genituzke. Helburua, ahalik eta denbora gutxienean ahal den gehiena ikastea da. Bestalde, osagarri bezala, iaz, Udalak lagunduta herriarentzat euskaltegian tailerrak antolatu ziren; aromaterapia ikastaroa, ikasleentzat eta herritarrentzat. Aurten horrekin jarraitzeko asmoa dugu.



JADA HASI DIRA ESKOLAK ETUMETA AEK EUSKALTEGIAN.

N. Ikasleen profilik ba al da?

O. U. Urte batetik bestera ikasleen erdiek baino gehiagok euskaltegian jarraitzen dute. Bestetik, ez da oso jende gaztea, EGA prestatzeko izan ezik. Kasu horretan, gazte jendea izaten da. Oro har, 30 urtetik gorako ikasleak dira, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago. Euskara maila baxua edota erdiko maila dutenak.

N. Euskaltegira etortzea euskara ikastea baina zerbait gehiago da?

R. Z. Ikasleekin edozein lagunekin baino denbora gehiago igarotzen dugu. Harreman nahiko estua sortzen da irakasle eta ikasle taldearen artean. Taldea errepikatzen baduzu, are gehiago. Konfiantza handia sortzen da.

O. U. Hizkuntzak berarekin dakarrena da. Hizkuntzaren aitzakiapean, beste gauza asko lantzen dira. Hori askotan haientzat berria, ezustekoa eta oso motibagarria izaten da. Kultur maila batean murgiltzen saiatzen gara. Sagardo Eguna datorrenean, talo ikastaroa antolatzeko baliatzen dugu. Bestalde, aurren, ikasleek "Kutsidazu Bidea Isabel" filma ikusteko sarrerak beherapenekin jasoko dituzte. Gainera, ariketen bidez, filma bera landu nahi da klaseetan.

N. Komunikatzen ikasteko irakasten duzue?

O. U. Helburua funtzioak betetzea da. Euskara zertarako ikasi nahi dugun erabaki eta gu horretara iristeko tresna iza-

tea. Egia da gehienek idazteko ikasi nahi dutela. Mintzamina ere beti dago helburuen artean. Teknika ezberdinekin lantzen da. Askotan gramatika baztertzeraz jotzen dugu, baina hori da erabiltzen duguna. Helburua, euskara, erabiltzen duenak egitea da.

N. Egunerokotasunean, nola betetzen dituzue helburu horiek?

R. Z. Mintzamenetik, entzumenetik eta ulermenetik abiatu eta gero, ekoizpenerako bidea egiten dute ikasleek. Diagnosi bat egiten da eta hortik aurrera taldeak erabakitzen du. Ikasleak dira protagonistak.

O. U. Lehenik ulertu egin behar da, gero hitz egin ahal izateko. Nondik jo zehazten duen kurrikulum bat dugun arren, taldeak markatzen du erritmoa.

N. Izena emateko zalantzan dagoen ikasle horri zer esan nahi zenioke?

R. Z. Lasai etorri eta proba egin dezala. Dedikazio handia behar du baina merezi du.

O. U. Euskara ikastea beharra izanik, bakoitzak ikusi behar du zer unetan ikasi. Datorrena gogoarekin etorri dadila. Ez dezala pentsa hau leku itxi bat denik. Ondo pasaz ikasten da; talde giro jator batean, elkarlanean... Proba dezatela. Probatzen duenak gustuko izango du. Bestalde, euskalduntzea ez da erdaldunen lana bakarrik. Euskaldunok oraindik egiteko lan handia dugu.

Arantxa Manterola, UHL

“Gure egoeran oposizioa egitea nahikoa zaila da”

Sei hilabete falta dira legealdia bukatzeko. Alderdiak jada hasi dira 2007ko maiatzean ospatu-ko diren udal hauteskundeak prestatzen. Hori dela eta, udal ordezkarien-gana jo dugu. Aste honetan, Arantxa Manterola UHL elkarguneko kidea elkarrizketatu dugu. Datozen asteetan bilduko ditugu EA, EAJ-PNV eta gainerako alderdien balorazioak.

NOAUA! Uztailean igorri zeniguten gutun batek dioenez, UHLk egin dituen hainbat eskaera eta alegazioak ez dute udal gobernuaren inolako erantzunik jaso. Nola daude gauzak une honetan?

Arantxa Manterola. Joan den ikasturtean aurkeztutako eskaera, alegazio eta mozioen artean hamabost bat erantzunik gabe geratu dira. Uztailean, guztiak zerrendatu eta, 1.200 herritarren ordezkari eta aldi berean herritar garen alde-rik, erantzuna jasotzeko eskubidea dugula uste dugu eta horrela adierazi genion, idatziz berriro ere, Luismari Ormaetxeari. Gaur arte, ez da arrastorik ere. Gure egoeran oposizioa egitea nahiko zaila da baina, informazio eta bitarteko gutxi ditugun arren, ahalegintzen gara.

N. Legealdiaren azken txanpan gaude. 1etik 10era, zein da zure ustez udal gobernuak merezi duen nota.

A. M. Zaila da nota jartzea. Pentsatu nahi dut hainbat gaietan txukun arituko direla baina beste batzutan, herriarentzat garrantzi handia duen hirigintzan, esaterako, sekulakoak eta bi egiten ari dira. Batez ere etxebizitzan. Hamar bat urterako prestatutako plangintza, bizpahiru urteetan agortu nahi dutela dirudi. Horrez gain, aurreikusitako 1.000 etxebizitzaren kopurua handitu egin dute. Herritarren beharrentzat direla diote baina, egiaz, promotore eta eraikitzaileak dira mesedetuak. Horrela jarraituta, bost edo sei urteetan Usurbil



ARANTXA MANTEROLAK AITORTU DIGUNEZ, “DATOZEN HAUTESKUNDEETAN AURKEZTEKO BORONDATE IRMOA DUGU ETA PRESTATZEN HASIAK GARA”.

zeharo aldatuko da, kontrolatu gabeko hazkuntzak ondorio zuzenak izango dituelako gure herri izaeran ez ezik, kale giroan, euskararen erabileran, herritarren harremanetan eta etxebizitzaren prezioan ere bai, noski.

N. Eta oposizioan egon direnen lana nola baloratuko zenuke?

A. M. Oposiziorik ez da izan. Hasieran EAJren aldetik zertxobait baina gero guztiari men egiten diote, aldez aurretik EAekin ondo negoziatuta, noski. Argi ikusi da aurrekontuen gaiarekin. Adibidez, legealdiaren hasieran beren zinegotzien dedikaziorako jeltzaleek eskatzen zituzten ordainsariak edo liberatuak, pixkanaka, lortzen joan dira EAren egitasmoak babestearen truke. PSOEek eta PPK egiten dute oposizioa gai batzutan baina, ez alferrik! biek gobernu akordioa egina baitute.

N. Sei hilabete falta dira udal hauteskundeetarako eta oraindik argitu gabe dago ezker abertzaleak aurkezteko aukerarik izango duen ala ez. Bien bitartean, hasi al zarete hauteskunde kanpaina prestatzen?

A. M. Ez dakigu aurkezteko aukerarik izango dugun ala ez baina argi duguna zera da: Ezker abertzalearen ideiak eta programak presente egon behar dute herrigintzan ere. Datozen hauteskundeetan aurkezteko borondate irmoa dugu eta prestatzen hasiak gara.

Bake prozesua, impasse egoeran

N. Bake eta normalizazio prozesua impasse egoeran dela dirudi. Zure ustez, zeintzuk dira prozesua bideratzeko eman behar diren urratsak?

A. M. Bakarra nahikoa litzateke. Prozesua serio hartzea, alegia. Kezka eta amorrua ematen dit askotan arduradun eta indar politiko gehienek jarrera arduragabeak. Kontu hau oso oso serioa da eta uste dut hitz ugari baina fribolitate izugarriarekin jokatzeko dutela. ETAk su etena eman duela eta hemen gauzak konpondu direla uste al dute? Gatazka benetan konpondu nahi bada, umeke-riak utzi eta heldu behingoz mamiari: Euskal Herriaren aitortzari eta herritarren erabakiari.

“Ingemar enpresa betelan berri bat egiten ari da legezko baimenik gabe”

San Esteban-Santuenea errepidea-
ren ondoko betelana dela eta, UHLk Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailara jo zuen duela hila-
bete batzuk. Errekerimendu horren zergatia zertan datza?

A. M. Aspaldi salatu genuen, baita udal arduradunei helarazitako eskaera eta egindako bileran ere, San Estebango igoeran Ingemar egiten ari den betelana. Hondakindegia ixteko agindua zuen enpresa horrek eta, aldiz, betelan berri bat egiten ari da legezko baimenik gabe. Udalak, herritarren

berdintasunaren printzipioari muzin eginez, utzi egin die betelana egiten. Udaberrian, Jaurlaritzako Ingurumen Sailak udalari jakinarazi zion betelanak ez zuela bere oniritzirik, enpresak bete behar diren baldintzak ez dituelako bete, tartean, inguru horretan bizi den xaguzahar espezie babestua ez kaltetzeko neurriak hartzearena. Udalak hori jakin arren, ez du ezer egin eta betelana egiten ari dira. Ingurumen sailera idatzi dugu horren guztiaren berri emanez eta behar diren neurriak har ditzala eskatuz.



SAN ESTEBAN AUZOTIK ATERATAKO ERRETRATUA.

“Erraustegia, ez Zubietan eta ez inon”

NOAUA! Hiri hondakinen inguruko eztabaidak ez du etenik. Azken albisteen arabera, errauste planta ezartzeko Zubietan da Foru Aldundiak hobestu duen tokia. Zein da eztabaida honen inguruan UHLk egiten duen hausnarketa?

Arantxa Manterola. UHLk askotan plazaratu du bere iritzia. Plataformak sortu aurretik ere, Diputazioaren asmoei buruz herria informatzen hasiak ginen eta udal-taldeei eta, zuzenean alkatetzan dagoen Ormaetxeari ere, beren jarrera argiki azaltzeko eskatu genien. Gogoratzen dut oraindik, 2004ko uztailean izan zen plenoan, talde guztiak erraustegia sistemaren alde agertu zirelarik, Eak agindu zuela ez zuela onartuko eremu garbi berri batean kokatzea, lehendik funtzio horretarako erabilitako lurak erabiltzea bultzatuko zuela. Aritzeta ingurua lehen eta orain Zubietan aipatzen dira kokaleku bezala, hau da, “gune garbiak”, baina oraindik ez diegu hitz bakar bat ere entzun. Dena dela, gure iritzia jakina da: ez dugu erraustegirik nahi, ez Zubietan eta ez inon. Gainera, ondorio hain nabarmenak izango dituen erabakia hartu baino lehen, herritarrei hitza eman beharko litzaiekeela uste dugu.

“Entzutegi Nazionalari bitan eskatu diogu Aitzaga irekitzeko”

NOAUA! Otsailetik itxita jarraitzen duen Aitzaga elkarteak kide ere bazara. Itxita jarraitzen duen arren, elkarteak lanean segitzen du, horren adibide 36ko gerraren inguruan antolatu dituzuen jardunaldiak. Elkartearen egoitza zabaltzeko saioak egin al duzue Audientzia Nazionalean?

Arantxa Manterola. Entzutegi Nazionalari bitan eskatu diogu Aitzaga irekitzeko. Handik ere, erantzunik ez. Nire ustez egoera politiko orokorrean aurrerapausoak ematen diren heinean, konponduko da auzi hau ere. Dena dela, lokala izan ala ez, elkarteak lanean jarraituko du.



18/98+ lan taldeak deituta, "Bat egin eguna" Altsasun

Es kubide zibil eta politikoen aldeko elkartasun jaia izango da igandean, urriak 8, Altsasun. Bat egin egunak herri nafar horretako San Pedro zelaietara lagun ugari erakarriko ditu. 18/98 auziko epaiketa saioek eragindako gastu ekonomikoei aurre egitea eta aldarrikapen jaia izatea nahi dute antolatzaileek. Bertan izango da, besteak beste, Usurbilgo 18/98+ lan taldea.

Euro bateko sarreraren truke, haur, gazte eta helduei zuzendutako ekitaldiez gozatu ahal izango da; trikitilariak, haurrentzako gunea edota musika emanaldiak programatu dira. Aipatzekoa da, ekitaldi sorta horren



PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOAK
ARITUKO DIRA ALTSASUN.

artean, bertan abian jarriko den enkante edo subasta. Goizeko 11:00etatik arratsaldeko lehen orduetara luzatuko da aldarrikapena eta elkartasuna uztartuko dituen jaialdia.

Pello Añorga ipuin kontalaria Sutegin

Ipuin bat irakurtzeak bere xarma du baina are gehiago paperean idatzitakoa norbaitek kontatzea. 1986tik istorio ugariren narratzaile lanetan aritu da Pello Añorga. Batetik bestera ibili ondoren, oraingoan, Usurbilgo Sutegi udal liburutegian geldialditxo egingo du. 5-6 urte dituzten haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa eskainiko du, euskaraz eta doan, urriaren 6an arratsaldeko 18:00etik aurrera.



PELLO AÑORGAREN
KONTAKIZUNAK AHO BETE HORTZ
UTZIKO DITU HAURRAK.

Dantza taldeak deitutako bilera

Dantza taldekoen bilera urriaren 6an egingo da Agerialden, 16:30ean. Talde ezberdinen entsegu-orduak zehaztuko dira. LH 1. mailatik aurrerako ikasleek ikastolan edo bilera unean bertan izena emateko aukera dute.

Erroizpe elkartearen batzarra

Txokoaldeko Erroizpe elkartetik igande honetan, urriak 8, izango den Batzar Orokorrerako deia luzatu nahi die elkarteko bazkide direnei. Hitzordu bikoitza ipini dute; lehen deialdia, 11:30ean eta bigarrena, eguerdiko 12:00etan.

Adinekoentzat hitzaldia Sutegin

Pertsona nagusien afektibitatea eta sexualitatea jorratuko ditu Ainhoa Garcia psikologoak Sutegin eskainiko duen hitzaldian. Hainbat pensakera desegoki gainditzen ahalgintzea eta giza sexualitatearen ikuspegi zabala ematea da ekitaldiaren helburua, helduengan eragina duten hainbat faktore aztertuta.

Usurbilgo Udalak antolatutako saio elebiduna urriaren 9an arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Sarrera doan.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

txirriStra

KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400

pintxoak
ogitartekoak
plateak konbinatuak

TABERNA

Zendoia

Kale Nagusia 3b - 943 37 40 71

San Praixku jaiak, azken txanpan

Haurren eguna eta presoei omenaldia, asteburuko egitarauan

San Praixkuetako lehen suziria jaurti zenetik astebete igaroda. Jaietako lehen asteburuan izan zen trikitixa doinu, parrandazale eta aizkora hotsik Aginagan.

Ostiral iluntzeko suzirik San Praixku jaiak gainean zirela iragarri zuten. Jai Batzordekoak Zahar Etxearen eraikinean edota Ariztitxo pilotalekuan jarritako txoznei azken ukituak ematen aritu ziren. Afalostean, Laiotz taldekoek lehen parranda gaua alaitu zieten bertaratu zirenei.

Erlojuari begiratu eta goiz erretiratu beharko zuenik izango zen. Gaupasa egiteko asmoa zutenek ez; bai, ordea, goizaldean oilasko biltzaileetan atera behar zutenek. Trikitixa doinuek esnara zuten Aginaga eta baita aginagatar bat baino gehiago ere. Errepidea ere moztu zuten uneren batean, trikitixa doinuek agindutako erritmora gerri buelta mugitzeko.

Larunbat gauean ere jende dezente soma zitekeen. San Praixkuetako triangulua, Zahar Etxeko eraikinak, Eliza Zaharrak eta pilotalekuak osatzen dutenaren bueltan ibili ziren



BERANDU HASI BAZIREN ERE, GIRO EDERRA IZAN ZEN IGANDEAN OSPATU ZIREN HERRI KIROLEAN.

parrandazaleak. Hiru guneean ere eskaintza ezberdina baitzegoen; Zahar Etxeko tabernan eta Jai Batzordekoen lokalean haiek prestatutako musika nahasketa; pilotalekuan Irats taldearen berbena; eta Eliza Zaharrean Dj Larraren emanaldia.

Igandean, eguraldi bikaina lagun, Aimar Irigoien harri jasotzailearen eta

Peñagarikano, Etxebeste, Txapartegi eta Olasagasti aizkolarien ikuskizun paregabeak herritar ugari erakarri zituen.

Urriaren 1ean ez ziren amaitu. San Praixkuak igandera arte luzatuko dira.

ARITZ GORRITI

Azken asteburuko ekitaldiak

Urriak 6 ostirala Umeen Eguna

10:00 Umeen jolasak, gogotsu etorri!
14:00ak aldera: amatxoek prestatutako bazkari goxo-goxoa.
17:30 Pirritx eta Porrotx pailazoak.
Ondoren, txokolatada eta buruhandi bizkor bizkorak eta gaizto gaiztoak.
Korri egiteko prestatu!
23:30 Izotz taldearekin dantzaldi paregabea. Jo ta su zapatillak gastau arte!

Urriak 7 larunbata Preso, Errefuxiatuen Eguna

16:00 XXVI. Mus Txapelketa herrikoia.
21:00 Herri afaria, txartelak betiko lekuetan salgai.
Gauerdian, herriko presoei omenaldia.
Ondoren, Trikitakerekin erromeri bikaina.
Jarraian, Abiba Diskojaia eta euren gogo-ez lagunduta itzeleko gaupasa!

Urriak 8 igandea

9:00 Probintzi mailako plater tiraketa lehiaketa.
17:00 Herri kirolak herriko gazte eta ez hain gazteen artean. Botillero lanetan talde bakoitzak bertsolari bat izango du. Bertsolariak ondorengoak izango dira: Peñagarikano, Mendiluze, Irazu eta Amaia Agirre.

Jai Batzordeak luzatu digun egitarautik jasoa.

Hitz-gegidunak!

	Gaztedia	▼		Bibotea du	▼		Kolonoen mendekoak	▼		Nafarroako herria	▼		Zaude
	* IZENA			Norat atzizkia			Errep., gorotza			Emakume izena			
	►			▼			▼			▼			▼
	Zabaldegi	►											
	Gerrarako tresna												
Madariak	▼		Ipar EH-n, osaba	►	▼			Ipar EH-n, lotsagabe	►				
* DEITURA			Hazitarako txerri arra					Nahastura trinkoak					
►			▼			Her, hizk., Antonio	►	▼			Bokala	►	
						Kontso-nantea					Potasioa		
Huskeriak	►					▼					▼		Bururatu
Diru-truk eskuratu													
►						Ingelese, maitea	►				Bokala	►	▼
						52					Jardun		
Interjekzioa	►			Aldrebesak	►	▼				Zilarra	►	▼	
Andaluziako hiria				Ba..., baneuka						Ukatzeko			
►				▼		... egina, total egina	►			Gaixo	►	▼	
						Sufrea				Bokala			
Aurkitua	►			▼				Ez ahal	►	▼			

* Euskadi Irratiko esataria eta BTK taldeko kidea.


Soluzioa: 17. orrialdean.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaia.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Hiru eskubaloï partida Oiardo kiroldegian

Entrenamenduekin Oiardo kiroldegia ireki bezain laster hasi baziren ere, Usurbil Kirol Elkarteko lau eskubaloï taldeak txapelketan murgilduta izango dira asteburu honetan. Pasa den igandean Gipuzkoako Txapelketako lehen partida jokatu zuten kadete mailako neskek. Beste hiru taldeek, berriz, larunbatean eta igandean jokatu dituzte txapelketako lehenengo norgehiagokak Oiardo kiroldegian.

Kadete mailako neskek izan dira 2006-2007 eskubaloï denboraldiari hasiera eman diotenak. Joan den igandean jokatu zuten Gipuzkoako txapelketako lehenengo partida Oiardo kiroldegian eta 17-25 galdu zuten AC Cocina Aiala A talde zarauztarraren aurka. Zarauztarrek talde indartsua dute, iaz kadete mailan Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun izan ziren, eta herriko neskek ezin izan zuten garaipena lortu. Hala ere, denboraldi polita egin dezakete herriko neskek.

Nerea Agudo eta Patxi Bengoetxea entrenatzaileek iazko taldearen bizkarrezurra mantendu dute eta infantil mailatik, berriz, iaz Eskolarteko Gipuzkoako txapelketa irabazi eta Euskadikoan bigarren postua eskuratu zuen taldeko jokalaria asko igo dira. Asteburu honetan lehen puntuak eskuratzeko aukera izango dute Zarautzen AC Cocina Aiala C taldearen aurka.

ren aurka.

Senior mailako taldeak, berriz, asteburu honetan jokatu du Oiardo kiroldegian 1. territorial mailako Gipuzkoako txapelketako lehenengo neurketa. Leizaran Ernio Inmobiliaria Andoaingo taldea izango dute aurrez aurre eta iaz lortutako 5. postua hobetzea izango da helburuetako bat. 10 talde izango dira lehian aurtengo denboraldian eta pasa den urteko sailkapenari begiratuz gero, Urola eta Ormaiztegi izan daitezke aurkaririk gogorrenak.

Iazko jokalaria gehienek taldean jarraitzen dute, baina prestatzaile arloan izan da aldaketa txiki bat. Bi entrenatzaile dituzte aurtun, azken urteetan taldean egon den Antonio Castro eta Jose Lorenzo "Manzano". Azken hau senior mailako taldeko eta jubenil mailako taldeko entrenatzailea izango da aldi berean. Izan ere, talde nagusiko eta jubenil mailako jokalariek elkarrekin egin dute denboraldi-aurrea eta badirudi aurrerantzean ere elkarrekin entrenatuko dutela.

Jubenilen taldeko jokalaria gehienak azken urtekoak izango dira aurtun eta iaz Gipuzkoako txapelketan 2. postua eskuratu ondoren aurtun ere lehen postuetan izateko arazorik ez lukete izan behar. Nagusiekin entrenatuaz datorren denboraldian, edo agian aurtengo partida batzuetan, senior mailan jokatzeko prest egon daiteke azken



USURBIL KIROL ELKARTEAK LAU TALDE IZANGO DITU AURTUN.

urteetan emaitza bikainak lortu dituen jokalaria taldea. Hauek ere Oiardo kiroldegian jokatu dute lehenengo neurketa asteburu honetan Aloña Mendi taldearen aurka.

Azkenik, kadete mutilena izango da asteburuan Oiardo kiroldegian denboraldiari ekingo dion hirugarren taldea. Jon Gallego eta Pako Agudok zuzendutako taldeak Donibane Eskubaloïaren aurka jokatu du.

JOSU ARANBERRI

1. Errejiional mailako taldea garaile

Usurbil Futbol Taldeko 1. Errejiional mailako taldeak 2006-2007 denboraldiko lehen garaipena lortu zuen pasa den asteburuan. Lehenengo bi neurketak galdu ondoren punturik lortu gabe zeuden herriko jokalaria, baina larunbatean Deban Amaikak Bat taldearen aurka jokatu

dearen aurka jokatu partidan ez zuten hutsik egin. Galtzen hasi baziren ere, azkenean 1 eta 2 irabazi zuten Xabi Orbegozo eta Unai Latailladek egindako golei esker. Larunbatean Bergarako Ilintxa taldearen aurka jokatu dute Zubietako belar artifizialeko zelaian.



“Gazteak eta administrazioa” unitate didaktikoa aurkeztu dute Buruntzaldeko udalek

Gazteak eta administrazioa elkarrengana hurbildu, administrazioari zuzendutako idatzizko eskabideak egiten ikasi edota egoera errealean bidez ahozketasuna landu asmoz, 12-18 urte arteko gazteei zuzendutako “Gazteak eta administrazioa” unitate didaktikoa aurkeztu dute Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek Andoainen. Irakasle eta ikasleei banatzekoak diren liburuxkek eta CD batek osatzen dute Usurbilen ere banatua izango den materiala. Administrazioaren alorrean, euskara bultzatzeko beste pauso bat da.



Eguneko goardiako farmaziak

Urriak 5, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 6, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urriak 7, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 8, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 9, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 10, asteartea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Urriak 11, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 12, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 13, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 14, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Urriak 15, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL



Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008



BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Zuen
publizitatea
hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

Agenda !!

Urriak 6, ostirala

- Usurbilgo Dantza Taldearen bilera Agerialden, 16:30ean.
- Pello Añorga ipuin kontalaria 18:00etan udal liburutegian.

Urriak 8, igandea

- "Bat egin eguna" Altsasun. 11:00etatik aurrera.

Urriak 9, astelehena

- "Pertsona nagusien afektibitatea eta sexualitatea", hitzaldia Sutegin. 18:00etan.

Kintoen afaria

Errasti sagardotegian

Urtero ospatzen dute kinto afaria 1956an jaiotakoek. Aurten, urriaren 21ean larunbata bilduko dira Errasti sagardotegian. Izena urriaren 17a baino lehen eman behar da telefono hauetara deituz: 943 365 318 (Angel) / 943 366 879 (Jose Miguel).

Soluzioa !!

	★	G	★	B	★	K	★	I	★
	G	A	R	I	K	O	I	T	Z
	★	Z	A	B	A	L	T	Z	A
★	U	★	O	T	T	O	★	O	Z
U	D	A	B	E	★	T	O	N	I
★	A	P	U	R	K	E	R	I	A
E	R	O	S	I	★	D	E	A	R
★	E	T	★	A	L	U	A	K	★
J	A	E	N	★	I	N	K	★	E
★	K	A	U	S	I	A	★	E	Z

Soluzioa: Garikoitz Udabe

Musikaren txokoa !!



Hiri, Kepa Junkeraren itzulera

Hiri, Kepa Junkeraren disko berriak birlu egiten du, nolabait ere, bera ipar-orratz bihurtu duen sormenezko ibilbide oparoa. Bidaia-koaderno baten moduan, istorio kilikagarririk biltzen ditu *Hiri* diskoak. Lan honetan zehar, argi-arrasto batek erakusten dizkigu, ibilian-ibilian, irudimenezko hiri baten zirrikituak, egilearen mundu pertsonalarenak; lan honetako kantu trinko bezain distiratsuek, musikaren xarmaren xarmaz, hiri berezi batera garamatzate: zaratsatu eta koloretsua, abegikor eta zoragarria, halakoxea baita bertako bizitza ere; bihurria, aldakorra, oroitzapenezko



eta askatasun-gosezko abestiz hornitua.

Elkar diskoetxean argitaratu ziren Kepa Junkeraren lehenengo lanak, eta hara itzuli da, hamar urteren buruan, disko berri hau ateratzeko, Lagun Aro aseguru-etxe ezagunaren babesarekin. Kepa Junkeraren disko berri hau irailaren 4an aurkeztua izan zen. Gau horretan bertan, Getxon, Nazioarteko Folk Jaialdian, diskoaren aurkezpen-kontzertua eskaini zuen. Lan honek, bestalde, banaketa paraleloa izango du, hasiera-hasieratik, hainbat herrialdetan. Aldi berean, Euskal Herria, Espainia, Frantzia, Erresuma Batua, Benelux, Suitza, Italia eta Japonian banatua izango baita.

Beran ospatuko da aurtengo

Nafarroa Oinez jaia

Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolek urtero egiten duten bestarik handiena da, euskararen eta euskal kulturaren aldekoa. Haren ospakizuna eta antolaketa Nafarroako ikastolen artean txandakatzen da, ikastola bakoitzak duen premiaren eta, hortaz, garatu beharreko proiektuaren arabera. 2006 urtean Berako Labiaga Ikastolari egokitu zaio Nafarroa Oinez prestatzea.



URRIAREN 15EAN OSPATUKO DA
NAFARROA OINEZ BERAN.

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da. 679185102.
- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatutzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.
- Usurbilen amueblatua dagoen pisu bat alokatzen dut. Interesatuak deitu 943362088 telefonora.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Galtzaragañan 18,95 metro karratuko garaje itxia salgai. Interesatuak deitu: 943361219.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. 610 29 18 64 (Carlos).
- 49 zm-tako Honada moto bat daukat salgai. Kondizio onetan eta modu onean. Interesatuak deitu 943364554 telefonora
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. Deitu 659879040 / 943 365 737 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- Asteburuan lan egiteko prest nago. Larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta astelehen goizetan. 686 120 402.
- Esperientzia duen neska umeak zaintzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko. 660 041 361.
- Udan umeak zaintzeko prest nago. 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik iraileira bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleharaz. 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakiak: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Olarrondo jatetxean astebukaeratan barran eta komedorean lan egiteko pertsona bat behar da. 943360376.
- Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. Lau orduz, goizeko 7:30etik 11:30era. Telefono zenbakiak: 943 37 06 91 (ilunabarrean).
- Jatetxe batean garbitasun lanak egiteko emakume bat behar dugu. Interesatuak deitu 943 36 27 13.
- Arratsaldeko etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Hiru hilabeteko hiru zakurkume dauzkagu oparitzeko. 943 36 33 06.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio honetan daukagu salgai. 676453176.
- Patri jatetxe inguruan urrezko (urre koloreko) pultsera bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzainetan galde.
- Tren geltoki inguruan Nokia telefono mugikor beltz bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzainetan galde dezala.
- Snow egiteko tabla bat fihazioekin salgai. 679185102
- Larunbatean Puntapax 22-24 artean dortoka bat agertu zen. Udaltzaingoak jaso eta animalien babeslekura eraman du.
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila erosiko nuke. 605 72 48 24

Txerrimunik ordainetan !



Zorionetako festan txokolatea jateko zain gaudе. Yuditek 5 urte egin ditu 26an eta Aimarrek 4 urriaren 6an. Zorionak eta muxu handi bat lagun guztien partez: Onintza, Xiker, Eider, Intza, Markel, Aritz, Lorena, Endika eta Intza.

Oharrak, Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

Datorren alea: urriak 13.

Zorion-agurrak urriaren 9a baino lehen ekarri edo bidali.
erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20170 Usurbil

Telefono interesgarriak !

- Udala.....943 37 19 51
- Udaltzaingoa.....943 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak943 37 01 48
- Taxi Tren.....943 47 09 76
- Anbulategia..... 943 36 20 13
- Udarregi Ikastola..... 943 36 12 16
- Udarregi (Agerialde).....943 36 38 95
- Haur Eskola (Kalezar).....943 37 40 61
- Oiardo kiroldegia.....943 37 24 98
- Zumarte943 37 15 94
- Etumeta euskaltegia943 37 20 01
- Taxi geltokia.....943 36 21 78
- D.Y.A.943 46 46 22
- Gure Pakea.....943 37 32 28
- Gure Elkarte.....943 37 17 51
- Arrate Egoitza.....943 36 63 40
- Bake epaitegia.....943 37 23 36
- Oa farmazia.....943 37 60 76
- Iturralde farmazia.....943 36 33 95
- Zubietako Batzarra.....943 37 20 77
- Argindarra (Iberduero).....943 47 09 76
- NOAUA! aldizkaria.....943 36 03 21
- Ertzantza.....112
- Suhiltzaileak.....112
- Larrialdiak.....112
- Anbulantziak.....112



JOSE AZPURUA
UNANUE

TELATUAK • FATXADAK

Pintura karga 1-84, Irujo-Ortu
943 36 17 83

Ortu-Ortu 14, Asier
943 69 68 01

URDANTZI

943 32 72 64
649 43 54 75
649 43 54 76

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470
urki.miluxo@euskaltel.net

Josue
Aranzazistroki

943 360 550
606 372 105
JOSUE ARANZAZISTROKI

Antonio
URRUZOLA

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Astasuain Industrialea, 3

BEREZIARTUA
S.L.

egarra eta
egur-aluminiozko
leihak - eskailerak
Aginaga 143 371 571

BARRENETXE

Solkamendi Arregi, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barren Elxe Kalea
ZUBIETA

Javier
Orbegozo

Gasa-berokuntza
659 602 789
Enrika txiki 13, Bask

Jose txo
Ikatzeta

687 951 225

Lataillade

gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

portularrume

Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

andoni
MARCOAK

605 702 517
Arrantzale p. 8-20

fernando
PINTURAK

en papelaketak
lurzoruak...
943 366 019

IZAGIRRE

943 365 095
609 068 111
Gaz 424, ETXEA 37
KALEZAR

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
Industria instalazioak konponketak
943 361 380
629 272 859
Borda Berr 5 lathia

gremioen gida

IGELTSERITZA

AROZTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTROKITA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noa.com